



PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak berriro editatu du gazteei elkarteak eratzen eta kudeatzen laguntzeko gida bat

Gaur egun, elkarten udal-erregistroan 668 entitate daude izena emanda, eta horien 88 gazte-elkarteak dira

Iruñeko Udalak berriro editatu du gazteei elkarteak eratzen eta kudeatzen laguntzeko gida bat. Tresna praktikoa da izapideak bizkorrago eta errazago egiteko, eta xede du gazte-elkarten sorrera eta garapena sustatzea. 2018ko maiatzean, elkarten udal-erregistroan dauden 668 entitateetatik 88 gazte-elkarteak dira, eta horretaz gain, beste elkarte askok badute gazteen sekzioa, edo sektore horri zuzendutako jarduerak egiten dituzte.

Komunitate Garapeneko zinegotzi ordezkari Esther Cremaesek prentsaurrekoan aurkeztu du gaur gida berria, zeinaren 300 ale argitaratu baitira, ele bitan. Gainera, eskuragarri dago doan deskargatzeko www.pamplona.es eta www.pamplonajoven.es webguneetan. Gidaren zuzendaria Ana Belén Albero Díaz izan da, zuzenbidean lizentziaduna, irabazi-asmorik gabeko elkarten zuzendaritza-kudeaketako masterduna eta Gaztediaren Etxeko aholkularitza espezializatutako arduraduna; eta zinegotziarekin batera agertu da prentsaurrekoan. Gidaren diseinua eta maketazioa Arturo Barcenillak egin ditu, aditua maketazioan eta liburu elektronikoen sorkuntzan. Gidaren aurreko edizioak 10.400 deskargatik gora izan ditu.

Gidaren lehenengo argitaraldia 2014koa da, eta gida honen bidez erantzun nahi zaio, hain zuzen, Gaztediaren Etxeak 14 eta 30 urte arteko gazteengan antzemandako aholku-eskaerari. Gidak sei kapitulutan jorratzen ditu honako gai hauek, oro har: kontzeptua, egitura, funtzionamendu-sistema, eraketa- eta kudeaketa-forma (aurrekontuak, zerga-betebeharrak, aseguruak, etab.), desegitea eta elkartei eragiten dieten arauak. Atal horiez gain, hainbat eranskin ere badaude, ereduak 19 agiri, sareko formularioak, esteka interesgarriak, eta diru-laguntzen berri eduki eta horiek eskatzeko zenbait jarraibide.

Erantzunak funtsezko galderei

Gaztediaren Etxeak 2014tik eskaintzen du elkartegintzarako aholkularitza-zerbitzua, eta bertan parte hartzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren abokatutzarako sarrerako Masterraren barruan praktikak egiten dituzten ikasleek. Zerbitzu horretan behar duten laguntza ematen zaie gazte, gazte-entitate eta elkartegintzan interesa dutenei elkarten sorrera, funtzionamendu eta garapenarekin lotutako gaiak dagokienez: kontabilitate-kudeaketa, zerga-kudeaketa, giza

1. orrialdea, (e)tik 2





baliabideak, boluntariotza, proiektuak egin eta diru-laguntzak eskatzea, etab. Aldi berean, eskura jartzen zaizkie gai horiek jorratzeko prestakuntza- eta ezagutza-tresnak, eta, oro har, laguntza eskaintzen zaie gazteen asoziazionismorekin loturiko edozein alderdiri buruz agiri-ereduak eta entitateen eguneroko lana kudeatzeko tresnak emanda.

Aholkularitza juridikoa aurrez aurre, telefonoz edo helbide elektroniko honen bidez egiten da: asociacionismo@casajuventud.com. Horretaz gain, gazte-elkartegintzarako aholkularitzak gune propioa du Iruña gaztearen webgunean; bertan kontsulta daitezke entitateek gehien eskatu dituzten gaien inguruko zenbait artikulua interesgarri, eta entitateek kontsultak egiteko formulario bat ere badago. 2017an, guztira, 255 kontsultari erantzuna eman zitzaion. Galdera gehien jaso ziren giza baliabideei eta boluntario aritzeari buruz (guztira 65, % 26), eta gero, bestelako gai hauei buruz: kontabilitateari eta zerga-araubideari buruz, 52 kontsulta (% 20); diru-laguntzak eskatzeko proiektuak egiteari eta diru-laguntzak justifikatzeari buruz, 49 (% 19); estatutuak aldatzeko egin beharreko tramiteei buruz, 42 (% 16); elkarteak eratzekeo tramiteei buruz, 35 (% 14); eta beste motako 12 kontsulta (% 5).

GAZTE-ELKARTEGINTZARAKO AHOALKULARITZA

Jasotako kontsultei banan-banan informazioa eta orientazioa emateko doako zerbitzua.

- **Aholkularitza juridikoaren ordutegia:** astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
- **Elkartegintzarako aholkularitzaren ordutegia:** asteazkenetan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Arta emateko bideak:** aurrez aurre, Gaztediaren Etxeko bulegoan; 948 233512 telefonoaren bitartez; asociacionismo@casajuventud.com helbide elektronikoaren bitartez, edo Iruña Gaztea webgunearen bitartez: www.pamplonajoven.es.

Iruñean, 2018ko ekainaren 5ean